

Eun eta ogeta bederatzi orrialde betetan dituez aukeratu diran idazti danak. Billabideak datoz gero, arduraz eta alegiñez egiñak. Amalau orrialdeko iztegitxo bat, azkenez: «Sarri erabilten diran berba batzuk, bizkaitarrak gipuzkera irakurteko lagungarri.»

N. A.G.



*OXOBI-ren lan orhoitgarri zonbait.* «Gure Herria»k agertarazia. Imprimerie des Cordeliers. Baiona, 1966.

Jules Moulié «Oxobi» (1888-1958) zenaren lan bilduma. J. Haritschelhar-en hitzaurre jakingarri bat darama. Eta bere 214 orrialdeetan haren lanetarik hoberenak biltzen dira. Geiena hizneurtuz egonarren, orotarik da bertan: mendiz mendizko, heiatik zerura, alegiak (eta huntan maixu genuen «Oxobi»), haur elhe haurrentzat, sentipenezko oihuak eta abar. Tartean, *Nola gauden eskualdun* izeneko pastorala ere bada, eta bukatzeko Oxalde bertsulariaren berri zeatzak dakarzki.

Gai ta euskera, aberatsak erabili zituen Oxobik bere denboran, Haritschelhar jaunak ongi dion bezala: «Idazlari eder eta indartsu izan dela Oxobi, nehork ez dezake ukha.» Liburuaren neurthitz xotilak barna, nornaik ikusi daitekean bezala.

J. SAN MARTIN.



GABRIEL ARESTI-ren olerkiak. *Euskal Harria*. Agustin Ibarrolaren marrazkiak. Kriselu-1. Bilbao, 1967.

Liburu hau, askorentzat harrika bezala dator eta beste askorentzat oinharritzat. Zer esana dakarren artean ez dator gaizki.

Euskeraz eta erderaz argitarazia dago.

Lafitte jaunak egin zion «Herria»n aburu jakingarri bat. Ikusi 895-garren zenbakia, buruilaren 28-koa. Bertan zion euskal literatu-

ran, Arestik, ez zuela ez aitarik, ez amarik; ez eta beraz egiazko haurriderik; «izaitekotz zombait seme-alaba».

Dena dela, gure herria koru handi bat balitz, Arestiri eskerrak badugu behar duen kontrakantua. Ta kontrakantu horrek bere gatz ematen dio euskal doinuari. 59-garren orrialdean ikusi genezake «Hibai ugaria», gure denboretako kontrakantuz... Falta diranen artean jarriko nituzke beste hauek: Xalbadorren kontra gipuzkoarrak, jatortasunaren kontra axolagabeak, Bizkaiaren kontra Bilbao, euskaldunen kontra euzkotarrak, fueroen kontra autonomia, justiziaren kontra lege berriak, lege guzien kontra libertatea... eta beste hainbeste.

Zer esanetan jarrai nahi duenarentzat komenigarria da Saizarbitoria «Zeruko Argia»ren 238 zenbakian (irailaren 24-koa) egiten zion aipamena. Interesantea derixkiot. Batez ere esaten duenean: «Arestik ez du beharbada Mikel Lasa'ren bertso fiña. Arestik bihotza urratu beharra du, ahoa irikitzeko bere besoak ebakiak ikusi beharra. Aresti profeta bat da, bere mendea, eta duen grazi berezi horrek salbatzen du joan den gizaldiko profeta edo predikatzaile bat izatek.» Baiña esan nezan aitaren etxearen jarraipenez egiñak fiñak direla.

Hala ere, liburu huntan, ez dioa lehendik hartua zuen mailla baiño gorago.

Ortografia berriari buruz ez nijoa ezer esatera, zeren lehendik ere nahi dutena egiten ari dire euskal idazleak eta haien beste eskubide badu. Hunelako gauzatxoak aintzat harturik Arestiren euskeltzale-tasuna eta herri maitasuna neurtu nahi duten haiek, pazientziz irakirri dezatela «Kapitain pilotu» izeneko poema.

Hutsen bat edo beste ikusi dugu, ta hoietako batean nabaitu gera, 137-gn. orrialdean, azken puntua «eta»kin bukatu behar zuela.

Iraillean Espriu katalan poeta handiaren karta bat izan nuen eta hara zer zion *Euskal Harria*-ri buruz: «Gutziz ikusgarriak dira poemak, poeta eta gizonaren adierazpen argi bat ematen dute, ta baita ere euskal hizkuntza berezi horren kemena ta indar berria. Emaiozu bere egilleari nere zorionik zintzoena, eta baita Agustin Ibarrolari ere marrazki arrigarriegaitik...»

Merezi du Arestiren liburu hunek, berarekin batean «Pater Noster» bat otohitz egin ahal izateko.

J. S. M.

